

SAIO INTERESGARRIAK ETA GIRO BIKAINA OEE OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN 25. OSASUN-BILTZARREAN

Osasuna, kirola eta euskara eskutik helduta aritu ziren joan den hilaren 17 eta 18an Gasteizen, UPV/EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean, OEEko antolatutako 25. Biltzarrean (25!). Hasiera-ekitaldian, OEEko presidente Karlos Ibar-guren eta fakultateko bertako dekanoa Maite Fuentesekin batera, Arabako Unibertsitate Ospitaleko gerente Jesus Larrañagak eta Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendari Jose Maria Armentiak parte hartu zuten. Osakidetza agintari biek argi adierazi zuten euskararen erabileraren normalizazioarekin hartua duten konpromisoa. Larrañaga jaunak, bere aldetik, 'detalle' txikien garrantzia nabarmendu zuen, nahiz eta horien aurrean 'esto es Álava' entzun behar izan duen behin baino gehiagotan. Armentia jaunak, berriz, normalizazioaren aldeko elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuen, eta bere departamentuak abian dauzkan neurri eta egitasmo batzuk aipatu zituen (aplikazio informatiko korporatiboaren egokitzapena, Bai sano! kanpaina, historia kliniko elebidunaren proiektua...), eta horien aplikazioaren erritmoa zaindu beharra dagoela azaldu zuen, batzuen batzuek moteltzat joko duten arren.

Biltzarrean atariko horren ondoren etorri ziren gainerako saioak, Biltzarra bera: mahai-inguruak, hitzaldiak, tailerrak, komunikazioak eta posterrak, eta posterrako, Pablo Berasaluze pilotariak jokoan izandako istripuaren ondoko errehabilitazioaren nolakoak azaldu zituen. Informazio gehiago, OEEren webgunean.

[webgunearen esteka](#)



UPV/EHU-REN ARABAKO CAMPUSEKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ZERBITZUA

VADEMECUM LIBURUA EZ DA PAPEREN GEHIAGO ARGITARATUKO

2015. urtetik aurrera, Vidal Vademecum enpresak formatu digitalean bakarrik argitaratuko du medikamentuen inguruko informazioa. Konpainiak Gipuzkoako Sendagileen Elkargoari jakinarazi dionez, *Vademecum internacional* liburuaren 55 edizio zabaldu ostean, elkargokideek hemendik aurrera ez dute inprimatutako gidaren alerik jasoko. Haiek, edonola ere, gero eta eguneratuagoko informazio farmakologiko osora iristeko aukera izango dute Interneten bidez.



2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO EZOHIKO DEIALDIA EGINGO DU AURKI OSAKIDETZAK

Osakidetza hizkuntza-eskakizunen sistema indarrean jarri zenetik, langile askok egiaztatu dute horietakoren bat. Hala ere, badira langileak, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko arazoa dutenak, nahiz eta bezeroei zerbitzua euskaraz emateko gai diren.

Arazo hori agerian geratu zen I. Euskara Planaren ebaluazioan, eta II. Planak erakutsi zuen hura konpontzeko bidea: Euskara Zerbitzu Korporatiboak langile-talde hari buruzko azterlana egingo zuen, eta, ostean, Osakidetza 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ezohiko deialdia egingo zuen, 45 urteko gorako langile euskaldunei zuzendua, horiek Planaren parte-hartze aktiboa izan dezaten.

Horrela, behin ikerketa eginda, aurki egingo da deialdia, eta horretan parte hartu nahi duten langileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Deialdia argitaratu aurreko hamabi hilabeteetan, Osakidetza lanean sei hilabete gutxienez jardun izana, edozein lan-loturarekin dela ere.
- II. Euskara Plana onartu zen eguna (2013ko abenduaren 3a) baino lehen 45 urte bete izana.

Deialdiak, noski, ohi ez bezalako ezaugarriak izango ditu; esaterako:

- Lehenengo proba ahozkoa izango da, eta ahozkoa gainditzen dutenek baino ez dute idatzizko proban parte hartuko.
- Ahozko proba gaindu ostean, idatzizkoa ez bada gainditzen, langileek kontraste-proba bat egiteko aukera izango dute.
- Eskabidea Osakidetza zerbitzu-erakundeetako Pertsonaleko zuzendaritzetan entregatu beharko da; ez da Interneten egingo.



ARAITZ MUGURUZA

«Geratu ere egin gabe ari gara lanean»

idoia gurrutxaga

Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari medikoa

Ebolari buruz ez da horrenbeste hitz egiten azken hilabeteetan, baina horrek ez du esan nahi gaixotasuna desagertu denik. Oraindik ere jendea kutsatzen ari da Afrikan. Europan, berriz, neurriak hartzen ari dira gerta daitezkeen infekzioetatik babesteko. Donostiako Unibertsitate Ospitalea ebolarekin kutsatutako pazienteak artatzeko ospitaleen sarean sartu dute. Idoia Gurrutxaga (Elgoibar, Gipuzkoa, 1967), Zuzendaritza Medikoko buruak eman ditu xehetasunak.

Ebolarekin kutsatutako gaixoak artatzeko, estatuko sarean sartu dute Donostiako Unibertsitate Ospitalea. Zergatik aukeratu dute? Zer ezaugarri ditu Donostiako Unibertsitate Ospitaleak?

Erreferentziazko zentroak izendatzeko eskumena Espainiako Osasun Ministerioak eta Lurralde arteko Kontseiluak daukate. Autonomia-erkidego bakoitzeko osasun-sailburuez eta Osasun Ministroaz osatuta dago batzorde hori. Haiek jarri dituzte izendapenerako irizpideak, eta horien arabera hautatu dituzte erietxeak. Batzorde horretako hiru ordezkari etorri zitzaizkigun abenduan ospitalera, bertako baliabideak, prestakuntza, profesionalen gaitzuntasuna eta trebakuntza aztertzeraz, eta lanketa horien ondoren hartutako erabakia izan da.

Ebolak hilkortasun-tasa handia eragiten du. Horregatik, hainbat neurri hartu behar dituzte haren arreta duten medikuek eta erizainek. Nolako prestaketa izaten dute osasun-profesionalek?

Abuztutik hona, ebolaren alarma epidemiologikoa jo zenetik, gure ospitalean eta lehen mailako arreta betetzen duten zentro guztietan, prestakuntza teorikoa eta praktikoa ematen aritu gara. Denborarekin, ikastaro horien intentsitatea eta hobekuntzak gehituz joan dira, eta kalitatean irabazi dute. Oro har, protokolizatu egin ditugu.

Zertan oinarritzen da protokolo hori?

Profesionalen segurtasuna eta babesa bermatzea izan dugu xede. Babes-ekipamenduak nola jarri eta kendu, horiek inguruari eta lekukoari nola eragiten dieten aztertu, eta zirkuituen prestaketa indartzen ahalegindu gara.

Oraindik ere jarraitzen al duzue prestaketekin?

Bai, bai, prestakuntza, trebakuntza eta zirkuituen azterketa astero lantzen dira gure ospitalean. Orain are gehiago, gela berria prestatzeko obren on-



DONOSTIALDEA ESI-KO KOMUNIKAZIO UNITATEA

doren, segurtasunaren eta zirkuituen egoera hobetzen joan baita.

Sarean dauden ospitale guztiek protokolo berari jarraitzen diozue ebola kasuren bat gertatzen denean, ala badago desberdintasunik erakundeen artean?

Osakidetzako ospitaleek, lehen mailako arretako guneek eta larrialdietako erakunde guztiek arreta-protokolo bera dugu. Egon egongo dira aldaketa batzuk, baina horiek txikiak dira; zirkuituetan, batez ere. Erakunde bakoitzaren nolakotasun edo ezaugarri arkitektonikoen arabera aldaketa izango dute.

Nola hartu zenuten ospitalerik onenen artean zaudetelako berria?

Ospitalearen eta profesionalen gaitasunaren aitortza benetan pozgarria eta atsegina izan da. Baina ez da horretan geratzen, askoz ere gehiago da. Ardur handia ere bada izendapena; gogoran izan behar da Espainiako Estatuko ospitalerik onenen artean dagoela.

Zer onura ekarriko dizkizue sare horretan egoteak?

Bereziki neurriak zehazten ditu. Adibidez, norbait kutsatuta dagoela uste du-

gunean zer neurri hartu gomendatzen du, edota larrialdi-egoera batean nola jokatu behar duten ospitaleek. Pazientea garraiatzetik hasi, eta ospitalera iristen den arte. Diagnosi diferentziala eta tratamendu egokia ematea erronka partegabea da. Prozesu horretan guztian



«Profesionalen segurtasuna eta gaixoen tratamendu hobea lortzeko ari gara aldaketak egiten»

parte hartzen duten profesionalen segurtasuna ere kontuan izan behar da, protokoloa aplikatzen den hurrengoan hutsunerik izan ez dadin, hau da, inork ez dadin.

Protokoloan ez ezik, ospitalean ere egin al duzue aldaketarik?

Bai, nahiz eta ebolaren kudeaketa daraman batzordeak esan gure ospitaleak beharrezko ziren baldintzak bete-

tzen zituela, hobekuntza batzuk egiten ari gara. Besteak beste, lanerako tokiak handitzen, baina batez ere, profesionalen segurtasuna eta gaixoen tratamendu hobea lortzeko ari gara aldaketak egiten.

Hilabete batzuk igaro dira ebolaren berri azkenekoz izan genuenetik. Horrek ez du esan nahiko, ordea, geldirik zaudetenik. Zertan ari zarete?

Esan bezala, lanerako tokiak hobetzen gabiltza. Halakoek beti ekartzen dituzte aldaketak protokoloetan; beraz, horiek ere lantzen ari gara. Etengabeko prestakuntza bermatzen ari gara, ebola-kasu berriren bat izanez gero inolako arazorik edo hutsunerik egon ez dadin. Ebolak kutsatutako norbanakorik agertu ez den arren, guretzat ez dago etenik. Geratu ere egin gabe ari gara lanean.

Pazienteak Afrikatik beren jaioterria eramateak eztabaida sortu zuen bere garaian. Askok esan zuten gaitza ondoen Afrikan dauden medikuek artatuko zutela, hango medikuak une oro ari baitira ebola tratatzen. Arrisku handiegia hartzen al da pazienteak jaioterria ekarritara?

Afrikak daukan arazo handiena baliabide-falta da; hori dela eta, ezinezkoa izaten da askotan gaixoak han bertan egoki artatzea; uste dut horregatik erabaki zutela pazienteak jaioterria ekartzea. Gaixotu ziren profesionalak Afrikara laguntzera joan ziren, eta han kutsatu ziren. Hango baliabideak urriegiak izango zirela ikusten zutelako eskatu zuten laguntza beren jaioterrian. Gure lanbidearen oinarrian dago behar duenari laguntza eta arreta ematea, eta gizartearen ere hala izan behar luke. Geu ere egoera horretan izango bagina, gauza bera nahiko genuke, ezta? Halako erabakiak beti izaten dira zailak, horrekin batera, kutsatzeko arriskua eta gaixotasuna hedatzeko beldurra izaten baitugu.

(C2 maila) gramatika

ARABERA

ARABERA postposizioa –en atzikiaren eskuinean doa:

- PROTOKOLOAREN ARABERA artatu dute pazientea.
- Bakoitzari bere BEHARREN ARABERA eman behar zaio.
- Medikuek GOMENDATZEN DUTENAREN ARABERA...

Arabera ez da gaztelaniazko según (*conforme a, de acuerdo con*), en función de, depende de... adierazteko dagoen aukera bakarra. Zehar-galdera ere erabiltzen da horretarako:

- Ez dakit larunbatean mendira joango naizen, belaunetik nola nabilen. (belaunaren arabera)
- Kontsulta noiz den, lagunduko dizut ospitalera. (kontsultaren egunaren arabera)
- Proba osagarrietan zer ikusten dugun, operatu ala ez erabakiko dugu.
- Orratz zuzena edo okerra behar izaten da, zauria nolako den.

Arabera erruz erabiltzen da gaur egun, eta, nonbait, ez beti zuzen. Esaterako, *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* liburu bikainaren 189. orrialdean irakur daitezkeen, "Ez da egoki arabera postposizioa erabiltzea aditz-izenezko perpausekin, eta zehar-galderarekin ere oso dudako gertatzen da". Saihestekoak dira, beraz, honelakoak:

- Hipertentsioak eragindako bihotz-gutxiegitasunaren bilakaera, emakume ala gizon **IZATEAREN ARABERA** desberdina izan daiteke.
- Tailerra urritik abendura izango da. **IZEN-EMATEAREN ARABERA** antolatuko dira taldeak.
- Oinarrizko eskubide, betebeharrak eta askatasunak bizilekuaren arabera baldintzatuko dira, eta ez bertokoa edo kanpotarra **IZATEAREN ARABERA**.
- Adinaren eta neska edo mutila **DEN ARABERA**, desberdinak izaten al dira galderak?

Halako asko, noski, gaztelaniatik euskarara ekartzean gertatzen dira:

- *Para su realización, se inyecta un medio de contraste yodado a través de una vena superficial, en el empeine o en la mano, según se estudie la extremidad inferior o superior.* Azterketa hori egiteko, kontraste iododuna injektatzen da, dela gainazaleko zain batean, dela oingainean, dela eskuan. Gorputz-adarra goikoa edo behekoa **IZATEAREN ARABERA** injektatzen da leku batean edo bestean.

Oraingoan ere errazagoa da 'zauria' atzamarrez seinatzea arazoa konpontzea baino, konponbidea ez baita samurra inondik ere begiratuta. Hala ere, bada ataka horretatik onik ateratzen denik ere:

- *No todas las solicitudes tramitadas son aceptadas y el importe concedido es diferente, según se trate de un incentivo, una subvención o una ayuda.* Tramitatutako eskabide guztiak ez dira onartzen, **eta emandako zenbatekoa desberdina da pizgarria, diru-laguntza edo laguntza den kontuan izanda.**
- *Las anotaciones desfavorables que pudieran hacerse constar en los expedientes personales quedarán canceladas al cumplirse los plazos de dos, cuatro u ocho meses, según se trate de falta leve, grave o muy grave.* Norberaren espediente egin daitezkeen aurkako oharrik ezabatu egingo dira bi, lau edo zortzi hilabeteko epea igaro ondoren, **hutssegitea arina, larria edo oso larria bada, hurrenez hurren.**

Besterik ez, irakurle. Honaino iritsi bazara eta ekarpenik egin nahi baduzu, ez izan zantzarik: idatzi Osatuberrira, eta arreta handiz irakurriko dugu. Mila esker, aurrez.

agenda

DEBAGOIENKO X. OSTEOPOROSI-IKASTAROA

Ekainaren 4an, Aretxabaletan, Otalora jauregian. Medikua eta erizaintzat, gaztelaniaz.

UEU, UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN 43. UDA-IKASTAROA

Ekainaren 29tik uztailaren 22ra bitartean, Eibar, Baiona eta Iruñean.

[webgunearen esteka](#)

UPV/EHU-REN XXXIV. UDA-IKASTAROA

"Gaur egungo bizkarreko arazok", uztailaren 9 eta 10ean, Donostian, Miramar jauregian.

Zuzendaritza: Angel Bidaurrezaga Vandierdonck. Medikua. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.

[webgunearen esteka](#)

"Jendaurrean hizketan", uztailaren 29 eta 30ean, Donostian, Miramar jauregian. Zuzendaritza: Andoni Egaña Makazaga. Bertsolari eta idazlea. Mintzola Fundazioa. Villabona.

[webgunearen esteka](#)

"Osasuna etxean", irailaren 3 eta 4an, Donostian, Miramar jauregian.

Zuzendaritza: Felix Zubia Olaskoaga. Medikua. Donostia Unibertsitate Ospitalea.

[webgunearen esteka](#)

Argibideak eta izen-ematea, ikastaroen idazkaritzan: 943219511

unitate didaktikoa

Irakurgaiak:
Jagoba Errekondoren
"Bizi baratzea"
liburuaren aurrerapena

